

**2018ko MAIATZAREN 31n UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **5 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko maiatzaren 31n, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Miren Letamendia Belloso and. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Maite Garrastazu and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Lioba Maiza Rekondo kontu-hartzaile and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2018ko APIRILAREN 26ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

- **2018ko apirilaren 23tik maiatzaren 25era.**

Segidan, Alkatetzak 2018ko apirilaren 23tik maiatzaren 25era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

- **2018ko maiatzaren 2tik 21era.**

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko maiatzaren 2tik 21era hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- 0593 DEKRETUAREN BERRI JAKITEA:

- **Kontratazio arloko eskumen batzuk eskuordetzea.**

2015O0200002 espedientea

Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, ondoren jasotako erabakia irakurri du idazkari andreak:

Alkatetzaren 0593 Dekretua, 2018ko otsailaren 14koa:

“Joan den martxoaren 9an indarrean sartu zen 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Kontratu txikiei dagokienez, lege horren 118 artikulua esaten du espedientearen tramitazioan baldintza batzuk bete behar direla. Kontratazio organoari erantzen dizkio baldintza horiek (Alkatetza), eta honako hauetan gauzatzen dira:

- Kontratazio organoak txostena egingo du, kontratuaren beharra arrazoitzeko.
- Justifikatuko da kontratuaren helburua ez dela aldatzen ari eta, horrela, kontratazioko arau orokorren aplikazioa ebitatzen.
- Justifikatuko da kontratistak ez dituela sinatu kontratu txiki gehiago, zeinak, bakarka edo multzoan, 40.000 euroko kopurua gainditzen duten, obren kasuan, edo 15.000 euro, hornidura edo zerbitzuen kasuan.
- Gastua onartuko da.
- Faktura sartuko da.

Alkatetzaren 2015eko uztailaren 7ko 998 Dekretuaren bidez, JESUS ARANA GOMEZ 1. alkateordearen esku utzi nituen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean jasotako honako eskumen hauek (21.1.f, ñ) eta p) artikulua):

- GASTUAK BAIMENDU ETA XEDATZEA, ETA BETEBEHARRAK ONARTZEA: 12.000 eurotik beherako zenbatekoaz edota, eskuordetza indarrean dagoen bitartetan, ekitaldi bakoitzean aurrekontua gauzatzeko arauan ezartzen den zenbatekoaz.

2018ko ekitaldiko aurrekontuaren batera onartutako AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAK honela arautzen ditu gastuen baimenak eta erabilerak:

“18. artikulua.- Gastuak baimentzea eta erabiltzea.

Gastua baimentzea hauxe da: gastu jakin bat egitea erabakitzen duen ekintza. Gastu horren zenbatekoa zehatza edo gutxi gorabeherakoa izango da, eta ordainketa-kreditu jakin baten edo konpromiso-kreditu baten kontura egingo da.

2015eko uztailaren 7ko Dekretu bidez, toki entitateko udalburuak eskumena eman ondoren, 1. alkateordeari dagokio 12.000 €-tik beherako gastuak baimendu eta erabiltzea (aldez aurretik beharrezkoa izango da kontu-hartzailearen oniritzia) dekretuz onartuko den ereduaren arabera. Baimen horiek ekitaldi bakoitzeko abenduaren 10a baino lehen egin beharko dira; hau da, ez da prozedura honen bitartez egindako gasturik onartuko egun horretatik aurrera.

Arau horretatik kanpo gelditzen dira IV. eta VII. kapituluetakoko gastuak. Horietan Udaltzarrak, Tokiko Gobernu Batzarra edo toki entitateko udalburua izango da organo eskuduna, haien eskumenetan adierazitako mugen arabera. Alkatetzak IV. eta VII. kapituluetakoko gastuetan duen eskumena Gobernu Batzarrari eskuordetu zion, 2015ko uztailaren 7ko Alkatetzaren Dekretu bidez: Norgehiagoka araubideko laguntza eta diru-laguntzak emateko deialdia onartzea, bai eta horien erabakia hartzea ere.

Eskuordetza horren esparrutik kanpo daude eta, beraz, Alkatetzaren esku geratzen dira ondokoak: alde batetik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 22.2 artikuluan aurreikusten duen zuzeneko laguntza eta diru-laguntza oro ematea, eta horien ondorengo formalizazio-hitzarmenak sinatzea; eta bestetik, gizarte-larrialdiko planen, banan banako laguntza planen eta abarren arabera baimentzen diren gizarte-arloko laguntzak, etab.”

Bestalde, 2014ko maiatzaren 20ko 696 Dekretuaren bitartez, 12.000 eurotik beherako gastuak baimendu eta onartzeko eredia onartu zen.

Orain beharrezkoa denez egokitzapenak egitea kontratu txikiak eraginkortasunez eta azkar kudeatzeko, aldaketak sartu behar dira 2018 urteko aurrekontuarekin batera onartutako AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAN.

Gainera, udal departamentuei galdetu ondoren, pentsatzen da egokia dela aurreko eskuordetze hori zabaltzea, lege berriaren baldintzetara egokitzeko.

Horiek horrela,

ERABAKI DUT

Lehenena.- JESUS ARANA GOMEZ 1. alkateordeari eskuordetzea 9/2017 Legeak (azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) 118 artikuluan Alkatetzari emandako honako eskumen hauek, zerbitzu eta hornidura kontratu txikiei dagokienez; aldiz, obra kontratu txikiak beretzat gordetzen ditu:

- Kontratazio organoak txostena egingo du, kontratuaren beharra arrazoitzeko.
- Frogatuko da kontratuaren helburua ez dela aldatzen ari eta, horrela, kontratazioko arau orokorren aplikazioa ebitatzen.
- Frogatuko da kontratistak ez dituela sinatu kontratu txiki gehiago, zeinak, bakarka edo multzoan, 15.000 euroko kopurua gainditzen duten hornidura edo zerbitzu kontratuetan.
- Gastua onartzeko ebazpenak.

Bigarrena.- Zinegotzi-ordezkariek eskuordetza honen xede diren gaitan agintzen dituen egintza administratibo guztietan, berariaz azalduko da zirkunstantzia hori, eta organo eskuordetzaile honek eskuordetu gabeko gaitan hartzen dituen ebazpenen balio berbera izango dute haiek ere.

Ebazpenen liburuan sartuko dira eskuordetutako eskumenei buruz agintzen diren ebazpenak, eranskin espezifiko baten bidez, bananduta, eta elkarren segidan eta ondoz ondo zenbatuko dira, onepenaren kronologiaren hurrenkeraren arabera.

Hirugarrena.- Ordezkarriak zinegotzi izaera daukan denbora guztian iraungo du ordezkari honek ere, edozein unetan eta betebeharrak formalak bete ondoren ordezkari aldatzeari edo baliogabetzeari utzi gabe.

Laugarrena.- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, onar dezan. Udaltzarrari ere honen berri ematea, egiten duen lehen bilkuran, eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaraztea.

Bosgarrena.- Dekretu hau Alkatezaren ebazpenen liburuan transkribatuko da, eta bere datoren hurrengo egunetik izango du eragina.

Seigarrena.- Kontratu txikien kontratazioko espediente tramatatzeko, ondorengo eredu onartzea.

EREDUA/MODELO

KONTRATU TXIKIA-GASTUA ESPEDIENTEAREN HASIERA/INICIO DE ESPEDIENTE

DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	
XEDEA/OBJETO	
BEHARRA/NECESIDAD	
HIRUGARRENGOA/TERCERO	
IFK/NIF	
AURREKONTUA/PRESUPUESTO	
PREZIOA BEZ BARNE/PRECIO (IVA INCLUIDO)	
EPEA/PLAZO	
BESTE BATZUK/OTROS	

Egin nahi den kontratazioak ez du kontratuaren helburua aldatzen, eta horrela, kontratazioko arau orokorren aplikazioa ebitzen.

Aukeratutako enpresa kontratistak ez du legeak ezartzen duen gehieneko zenbatekoa gainditzen duen kontratu txiki bakarra edo kontratu-multzoa sinatu.

Departamentuaren arduraduna
Responsable del departamento

El contrato que nos ocupa no supone una alteración del objeto para evitar la aplicación de las reglas generales de la contratación.

La empresa contratista elegida no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra máxima legal establecida.

Zinegotzi arduraduna
Concejal/a responsable

Aurrekariak ikusita eta kontuan hartuta kontratuaren beharra arrazoitu dela eta Departamentuaren

Vistos lo antecedentes y como quiera que se ha motivado la necesidad del contrato y que el /la responsable del

arduradunak eta zinegotzi arduradunak sinatu dutela 9/2017 Legeak 118 artikulua 3 puntuan aurreikusitako baldintzak betetzen direla dioen agiria, BAIMENA EMATEN DUT kontratu txikiaren espedientea hasteko

Departamento y Concejal responsable han suscrito el cumplimiento de las condiciones previstas en el punto 3 del artículo 118 de la Ley 9/2017, AUTORIZO el inicio del expediente de contrato menor.

Zinegotzi ordezkaria
Concejal Delegado

Zarautzen,.....ko(a)ren(e)an

5.- KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRAREN OSAERA ALDATZEA

2016III0008 espedientea

Zarauzko Udalbatzarrak 2016ko irailaren 29an egindako bilkuran erabaki zuen ZARAUZKO UDALEKO KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA eratzea arau hauek ematen zizkieten funtzioekin: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak (320. artikuluan), eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (30/2007, urriaren 30ekoa) zati batean garatzen duenak (21. eta hurrengo artikuluetan)

Era berean, aipatutako organoaren osaera eta funtzionamendu arauak ere onartu zituen.

Udalbatzarrak 2017ko irailaren 28an egindako bilkuran erabaki zuen, Kontratazio Mahai Iraunkorraren bileren aldizkakotasuna aldatzea eta hamabost egunetik behin egitea, hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren asteartean, eta onartutako gainerako funtzionamendu-arauak bere horretan mantentzea.

2018ko martxoaren 9an indarrean sartu zen azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, berriz, 326. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarriaren 7. atalean kontratazio-mahaien funtzionamendua eta osaera berria arautzen dituzte.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Antolakuntza informazio batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Kontratazio Mahai Iraunkorra modu berri honetan osatzea:

Mahaiburua:

- Zarauzko Udaleko alkate udalburua.
Ordezkoa: 1. alkateordea.

Mahaikideak:

- 1. kidea: Dagokion arloko zinegotzi arduraduna.
Ordezkoa: Udal Gobernuko beste zinegotzi bat.

- 2. kidea: Udaleko idazkari nagusia.
Ordezkoak:
 - Zerbitzu juridikoetako administrazio orokorreko teknikaria (Kontratazioa eta Ondarea)
 - Zerbitzu juridikoetako administrazio orokorreko teknikaria (Ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).
- 3. kidea: Zerbitzu juridikoetako administrazio orokorreko teknikaria (Kontratazioa eta Ondarea)
Ordezkoa: Zerbitzu juridikoetako administrazio orokorreko teknikaria (Ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).
- 4. kidea: Udal kontu-hartzailea.
Ordezkoak:
 - Kontabilitate eta Aurrekontuetako teknikaria.
 - Errentetako teknikaria.
- 5. Kidea: Herritarren arloko koordinatzailea.
- 6. Kidea: Lurralde arloko koordinatzailea.

Idazkaria:

- Zerbitzu juridikoetako administraria (Kontratazioa eta Ondarea)
Ordezkoa: Zerbitzu juridikoetako administraria (Ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).

6.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

– Naqba eguna dela-eta. 70 urteko okupazioa Palestinan

2018O0010007 espedientea

Segidan, udal taldeek adostutako adierazpen instituzional hau irakurri du **alkate** jaunak:

**NAQBA EGUNA DELA-ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
70 URTEKO OKUPAZIOA PALESTINAN**

1948ko maiatzaren 15ean, historia modernoko kolonizazio prozesu luzeenetako bat hasi zen, Naqba, Palestinaren *hondamendia*. Urteetan eta urteetan zehar, Palestinari bere lurak, etxeak, baliabide naturalak, eta oinarrizko eta ezinbesteko eskubideak kentzen aritu da Israel. Palestinako herritarrak banatzen dituzten hormak eraiki ditu, horma fisikoak, Cisjordaniakoa bezalakoak, edo legezkoak, errefuxiatuta dauden palestinarrei euren etxeetara itzultzea galarazten dietenak bezalakoak. Gazan, hau da, mundu osoan aire zabalean dagoen kartzelarik handienean, eguneroko bizitza bizirik irauteko borroka bat da, eta Nazio Batuen Erakundeak berak ohartarazi zuen, horrela jarraituz gero, 2020. urtean lurralde horretan ez zela bizitzerik izango.

Naqba edo Israelen jazarpena eta garbiketa etnikoa gertatu zenez geroztik hirurogei urte pasatu dira, eta Gaza, Cisjordania eta Jerusalem militarki okupatu zutenetik berrogeita hamar urte, eta hala ere, palestinarren dramak konpondu gabe jarraitzen du. Bost milioi errefuxiatu palestinar baino gehiago Jordanian, Sirian, Iraquen edo munduan zehar barraiatuta bizitzera behartuta daude... eta errefuxiatu horiek beren etxe eta herrietara itzultzeko eskubidea dute. Sei mila palestinarretik gora daude Israelgo kartzeletan, eta mundu osoan beste inon gertatzen ez den egoera bat bizi dute: Israelgo indar okupatzaileak Palestinako herritarren laurdena atxilotu edo detenitu du noizbait, gehienetan salaketarik gabe, eta gero eta kasu gehiagotan, adin txikikoak.

Azken asteotan, Naqbaren oroitzapenean, Gazako zerrendako palestinarrek euren lurretara itzultzeko martxa bat egiten ari dira. Itzuleraren Martxa Handia izena du, martxoaren 30az geroztik ari dira ospatzen, eta Naqba-ren 70. urteurrenaren ospakizunarekin lotuta du. Bestalde, Cisjordaniako palestinarrek, Itzuleraren Martxa Handian parte hartzeaz gain, Jerusalemen manifestatu dira Ipar Amerikako enbaxada Israeldik Jerusalemara eramatearen kontra.

Martxoaren 30etik gaur arte, martxa horretan parte hartzen zeuden 70 palestinar gutxienez hil eta 6.000 baino gehiago zauritu ditu Israelek, horietako asko larri zaurituta daude. Estatu Batuetako enbaxadaren inaugurazio-egunean, berrogeita hamar palestinar baino gehiago hil zituen Israelek Gazako Zerrendan. Ezinbestekoa da Nazio Batuen Erakundeak neurriak hartzea horrelako sarraski baten aurrean palestinarrek babesteko.

Gazan ikusten ari garena gerrako krimenak dira, eta Israelen partetik Nazioarteko Eskubidearen urraketa laugarria. Nazio Batuen Erakundeak, estatu batzuek eta Nazioarteko Gorte Penalak salatu dituzte krimen horiek eta Israeli eskatu diote amaitu dezala bortizkeria horrekin. Nazio Batuen Elkartearen 242. Ebazpena bete behar du Israelek, eta okupatuta dauzkan lurralde palestinarretatik alde egin behar du. Gure gobernuari benetan presio egiteko garaia da, Israel behartu dezaten hondamendi horrekin bukatzera, eta eskura dituzten baliabide guztiekin, behartu dezaten gelditzera.

Eta horrexegatik honako mozio hau aurkezten dugu:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

- 1.- Israelgo gobernuak Palestinako herriarekin egiten ari den giza-eskubideen urraketa larria gaitzetsi eta salatzen du Zarauzko Udalak.
- 2.- Israelen okupazioa, kolonialismoa eta apartheid-a gaitzetsi eta salatzen ditu Zarauzko Udalak.
- 3.- Zarauzko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio defenda dezala, nazioarteko foro guztietan, Nazio Batuen ebazpenak betetzeko alde guztiek duten obligazioa.
- 4.- Zarauzko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio berretsi dezala Diputatuen Kongresuak, Palestinako Estatuaren aitortpenari buruz, 2014ko azaroaren 26an hartu zuen erabakia.

7.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Eusko Jaurlaritzaren eta patronalaren arteko esparru akordioari buruzko mozioa

2018O0010008 espedientea

Segidan, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

EUSKO JAURLARITZAREN ETA PATRONALAREN ARTEKO ESPARRU AKORDIOARI BURUZKO MOZIOA

JUSTIFIKAZIOA

2018ko apirilaren 16an egin zen publiko Eusko Jaurlaritzaren eta patronalaren arteko akordioa, "Enplegua eta trebakuntza sustatzeko lankidetzarako 2018-2020 esparru-akordioa" izenekoak.

Jaurlaritzatik, Iñigo Urkullu lehendakaria, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako sailburua, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua aritu dira akordioa lantzen, eta haiek sinatu dute. Patronalen izenean, berriz, Confedebak, ADEGIK, CEBEKek eta SEAK hartu dute parte. Akordio hori erdiesteko, Eusko Jaurlaritzak ez du Euskadiko sindikatu nagusietako bakar bat ere aintzat hartu; hau da, Elkarrizketa Sozialerako Organo Iraunkorra arbuiatu du.

Gertatutakoa ikusita, Eusko Jaurlaritzak ez du bete gobernu-programan lan-harremanen esparrurako finkatu zuen lerroetako bat: eztabaidatuz eta gizarte-eragileekin partekatuta hartuko zituela politika publikoen gaineko erabakiak. Gainera, jokabide hori bere apustu nagusienetakotzat aurkeztu zuen, eta orain ikusten dugu sekulako porrota ari dela izaten.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

MOZIOA

1.- Zarauzko Udalak arbuiatu egiten du Eusko Jaurlaritzak eta patronalek sinatutako "Enplegua eta trebakuntza sustatzeko lankidetzarako 2018-2020 esparru-akordioa", ez dagoelako ados ez hura onartzeko moduarekin (sindikatuaren eta gizarte-eragileen parte-hartzerik gabe), ez haren edukiekin, patronalen interesei soilik erantzuten baitie.

2.- Zarauzko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Gobernuaren eta eragile sozialen arteko konfiantza-giroari laguntzeko beharrezko lehen urrats gisa, bertan behera uzteko "Enplegu eta trebakuntza sustatzeko lankidetzarako 2018-2020 esparru-akordioa". Konfiantza-giro horrek aukera eman behar du gizarte-elkarrizketarako gune eraginkorrak sortzeko, hau da, gune bat non alde guztiek egoki joko baituten han parte hartzea.

3.- Zarauzko Udalaren ustez, ezinbestekoa da sindikatuek eta eragile sozialek politika publikoei buruzko eztabaidaguneetan eta erabakiguneetan parte hartzea.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio har ditzala beharrezko neurriak sindikatuei eremu horietara sartzea errazteko.

4.- Zarauzko Udalak akordio honen berri emango die komunikabideei eta erakunde sindikalei.

Mozioa hizpide hartuta, eztabaida eta bozketa egin dituzte. Honela geratu da:

Botoak alde:	9	(5 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Irabazi-Zarautz)
Botoak kontra:	8	(8 EAJ-PNV)
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU aurreko mozioa onartzea.

8.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

— Herri autobusaren eta taxi-busaren uda gaueko zerbitzua.

2018O0010009 espedientea

Hurrena, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute andreak. Hona hemen testua:

HERRI AUTOBUSAREN ETA TAXI-BUSAREN UDA GAUEKO ZERBITZUA

Herritar askorentzat uda opor garaia da, erlaxatzeko, disfrutatzeko eta aisialdiaz gozatzeko unea, festa giroan aritzeko momentu paregabea. Tamalez, urtez urte, bereziki udako jai garaietan gure herrietan sexu erasoak pairatu izan dituzte emakumeek. Horren aurrean, pertsonen segurtasuna ahal den neurrian bermatzeko ardura dauka Udalak.

2017ko udan Zarautzen gertatutako eraso sexisten ondoren herriko eragile feministek segurtasuna hobetzeko hainbat neurri eskatu zituzten; tartean gaueko orduetan garraio publikoaren beharra azpimarratu zuten. Udal gobernuak, neurri horien azterketa egiteko konpromisoa hartu zuen.

Ia urtebete beranduago, uda garaiaren atarian gaude eta gaueko garraioaren inguruan galdetu dugunean ez dugu erantzun egokirik jaso. Gai honetan Udal gobernuak erakutsitako akzio eza ikusita eta mugimendu feministak emakumeen segurtasuna hobetzeko aurkeztutako neurriak gobernuaren lehentasunetatik kanpo gelditzen direla ikusita, EH Bilduk herritarren beharrei erantzuteko asmotan, ondorengo proposamena luzatzen dio Udal batzarrari, froga pilotu moduan onartu dezan:

Mozioa:

1.- Zarauzko Udal batzarrak uztaila, abuztua eta iraileko hilabeteetan egunero

herriko autobus zerbitzuaren ordutegiaren luzapena 00:00ak arte zabaltzea erabakiko du, ostiral eta larunbatetan izan ezik, egun horietan 01:00 arte izango delarik.

2.- Zarauzko Udal batzarrak, herriko mugimendu feministarekin adostuta, jai egun berezietan herriko autobusak gauean zerbitzu berezia izatea erabakiko du.

3.- Zarauzko Udal batzarrak autobus zerbitzuaren ordutegi luzapen tarte horretan, emakumeek autobusaren geldialdia ibilbideko edozein lekutan eskatu ahal izatea erabakiko du.

4.- Zarauzko Udal batzarrak gaur egun Udalak eskaintzen duen Taxi-Bus zerbitzua, uda garaian gauetara eta herri osora zabaltzea erabakiko du.

5.- Zerbitzu berri hauek herrian gizarteratzeko behar den informazio kanpaina burutuko da, bereziki emakumeei zuzendua.

EH BILDU udal taldeak aztergai hau gai-zerrendatik kendu du. Azalpen gisa adierazi du proposamena aztertze aldera akordio batera iritsi direla gobernu-taldearekin izandako elkarrizketetan.

9.- ESKARI-GALDERAK

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide:

- Herritarren segurtasuneko ofizial arduradunaren lanpostuari dagokion apelazio errekurtsua.
- Bilgune Talde Feministari informazioa autobusari buruzko eskaerari dagokionez.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko zortzietan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.